

HH eta LEHEN HEZKUNTZAKO JARDUERA ANTOLATUAK (HJA)

1.- NORBERAREN EZAGUTZA

Multzo honen helburu nagusia ikasleengan hiru urtetik hamabi urtetara beren burua ezagutu dezaten, beren buruez egoki jabetu daitezen, kontzientzia har dezaten eta beren ahalmenarengan konfiantza izan dezaten sustatzea da.

1.1- Norberaren desioak, sentimenduak eta arazoak:

- Norberaren gustuak eta zaletasunak.
- Zertarako gai garen.
- Nirea denaren esanahia.
- Gauzak egitea, gauzak ondo egitea, zerbait txarra egitea.
- Norberaren etorkizuna irudikatzen hastea.
- Asmoak edukitzea, itxaropena edukitzea.
- Pentsatzen edo egiten dugunarekin koherenteak edo inkoherenteak izatea.
- Desioak izatea eta desioak errealitatea bihurtzea.
- Polita, ederra, egia, zuzena, ona zer den.
- Kontraesanak.
- Ezetz esatea.
- Asertzioa.
- Lotsa.
- Beldurrak.
- Errudun sentitzea, gorroto sentimendua, arrazoizkoak diren eta ez diren sentimenduak.
- Arrazoiak, egindakoari buruzko arrazoiak ematea, batek egiten duen guztia arrazoitu beharra al dago, nahita edo nahi gabe egitea.
- Sinestea, sentitzea eta jakitea.
- Zer pentsatzen dugun, nork bere kabuz pentsatzea, zoriotsu izatea eta pozik egotea.

2- GAINERAKOAK EZAGUTZEA ETA GAINERAKOekin BIZITZEA

Gai multzoaren helburu nagusia elkarbizitzaren garapena laguntzea da. Ikasle bakoitzak gainerakoekin elkarbizitzen ikasi behar du, bere taldeko partaide sentitzen, taldeetan nagusi diren baloreak eta berak taldean betetzen duen egitekoa ezagutzen.

2.1- Adin berekoen arteko harremanak:

- Adiskidetasun, senide-arteko eta taldeko harremanak: adiskidetasuna, gauzak konpartitzea, dakiguna konpartitzea, komunikazioa, errespetua, lehia, zintzotasuna, konfiantza, liskarrak, mehatxuak, inbidiak, indarra erabiltzea, gaitzondoa, jolasetako arauak, sekretuak
- Familiako eta taldeko partaide edo kide izatea: akordioak ezartzea, ezadostasunak adieraztea, lankidetzeta, buru-zaintza, elkarren arteko errespetua, barkamena eskatzea, arauak eta arautegia, berdina eta ezberdina izatea, leialtasuna.

2.2- Helduekiko harremanak:

- Araudia eta elkarbizitzako moduak: aginduak, eta debekuak onartzea edo kontra egitea...
- Helduen jarrera: koherentzia, ulermena eta konfiantza.

2.3- Harremanak arautu eta elkarbizitza laguntzen duten gizarte-mailako konbentzioak.

- Gure kulturarako sinboloak, zeinuak, ospakizunak, zeremoniak, erritoak...
- Beste kulturetako sinboloak, zeinuak, ospakizunak, zeremoniak, erritoak

3.-ERREALITATEAREN ULERMEN KRITIKOA ETA MORALA

Gai-multzo honen helburua norberaren kontzientziaren hobekuntza bilatzea, egoera baten aurrean neska-mutilei era batera edo bestera, norberaren irizpideen arabera, jarduteko aukera emango dien ekintza multzoa bideratzea da; azken finean, heziketa morala bideratzea.

3.1- Ingurune fisikoari eta giza inguruneari dagokionez:

- Baztertzea: gainerakoak baztertzea.
- Zergatiak, zergatien eraginak eta azalpenak, ondorioak.
- Orokortzeak.
- Irizpideak: konparazioko patroik gisa, erabakiak hartzeko.
- Zuzena, zuzen pentsatzeko modu bakarra al dago?
- Eskubideak eta eginbeharrak.
- Errespetua adieraztea: agintea duten pertsonek.
- Bizitza eta heriotza.
- Bizitzea, ondo bizitzea.
- Lana: enpleguaren eragina familiako bizitzan: langabezia, pobrezia, denbora libre...
- Dirua: zergatik daude aberatsak eta pobreak? Kontsumoa.
- Ohiturak eta usadioak.
- Harreman motak gainerako gizarte eta kultura-taldeekin.
- Ingurugiroaren degradazio egoerak: zer dagokit niri?

3.2- Elkarbizitza arautzen duten lege edo tresna batzuk ezagutzea:

- Azalpenak ematen dituzten legeak.
- Aginduak ematen dituzten legeak.
- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala.
- Haurren Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala.